

EUSKALTZAINDIA

IMMIGRAZIO BERRIA, HIZKUNTZA ARAZO BERRIRIK?

Xabier Aierdi eta Erramun Osa

XIV. JAGON JARDUNALDIAK (2009-11-20)


www.euskaltzaindia.net

EUSKALTZAINDIA

- Immigrazio berriak hizkuntza arazo berririk ote dakar gure artera?
- Maiz eskatzen zaie etorkinei bertakoek bete beharrik ez duten zenbait kultur- edo gizarte-arau betetzeko, horien artean hizkuntza ezagutzearena
- Hemen sozialki normala izateko, integratzeko, euskara jakin behar da? Hori hala bada hemengo pertsona asko eta asko integratu gabe daude?



EUSKALTZAINDIA

TESTUA: 200.000 etorkin etorri dira azken hamar urteotan lau herrialdeetara, baina ez intentsitate berberarekin herrialdeen arabera. Portzentaia hauen atzean aktibitate egitura ezberdina dago. Lau herrialdeek egitura ekonomiko sendoa duten neurrian, seguruenik portzentaia eta kopuruak igoten joango dira.




EUSKALTZAINDIA

TESTUA: Datu orokor batzuetara joz, hamar urtean aldaketa nabarmenak ikus litezke etorkinen jatorri osieran. Horrela, duela hamar urte nagusi ziren gaur Europar Batasuntzat kontsideratzen duguna, %47, baina, hamar urte geroago, %29 jaitsi dira. Euren tokia Latinoamerikatik etorritakoek hartu dute, ia portzentaia antzekoetan, %45, eta, aldaketa honek, besteak beste, hizkuntz ikuspegitik garrantzi handia du. Bestalde, logikoa da, Estatu ikuspegi batetik, immigrazio tipologia hau lehenestea. Gainontzeko jatorrietara joz, Europar Batasunak gaur %30 suposatzen du egun, Afrikak %18 eta Asiak, gutxi gora behera, %5.




EUSKALTZAINDIA

TESTUA: Jatorri hauek, edozelan ere, ez dira modu beretsuan banatzen lurraldeka. Latinoamerikarrak nagusi dira Bizkaian, oso esanguratsu Nafarroan eta intentsitatea galtzen dute Gipuzkoa eta Araban. Gipuzkoan oso nabarmena da Europar Batasuneko jatorria dutenen kopurua. Araban, Afrikatik datorren populazioa -batez ere, Magrebekoa- gainontzeko lurraldeetan baino handiagoa da. Gainontzeko arlo guztietan ez dago ezberdintasun esanguratsurik; agian Nafarroan Asiarrek duten presentzia eskasagoa izango da.



EUSKALTZAINDIA

TESTUA: Adinari erreparatuta, oso ezberdinak dira biztanleria osoa eta etorkinen adin egiturak. Etorkinen bi heren hain gazte izateak bi ondorio dakartza behinik behin: lan proiektu batekin datoz eta oso gutxi dira eskolara hurbildu ahalko direnak, beraz euskara hurbiletik biziko dutenak, beti ere gune euskaldunetan instalatzen ez badira. Hau da, zailtasun objektiboak saihestezinak dirudite arlo honetan.




Iturria: IKUSPEGI, INEren datuetan oinarrituta

www.euskaltzaindia.net

EUSKALTZAINDIA

TESTUA: Ereduka, A ereduan %40 dago eta %30 bana B eta D ereduetan. Datu hauek asko aldatzen dira herrialdeka, baina lehenengo eta behin, kontuan hartu behar da banaketa honetan, etorkinen nahi zehatzak baino gehiago, lurralde bakoitzeko eredu-egiturak baldintzatzen duela. Horrela, Gipuzkoan ia A eredurik ez dagoen bitartean eta horrek B eta D ereduetan presentzia handiagoa edukitzera behartu, Bizkaia eta Araban, batik bat, erdal ereduak nagusitzen dira eta D ia desagertu.



A

B


D

Iturria: IKUSPEGI, INEren datuetan oinarrituta

www.euskaltzaindia.net

EUSKALTZAINDIA


HH+LH+DBH. EAE, 2006/07-2009/10*



* aurre-matrikulazioa

EUSKALTZAINDIA

TESTUA: Eskolan matrikulatuta daudenengan erreparatuz, lehenengo eta behin, oso kontuan hartzeko datua da gehienak matrikulazio epez kanpo etortzen direla. Horretaz gain, gehienak, bi heren sare publikoan matrikulatzen dira eta %35 inguru itunpekoan. Banaketa hau orekatuagoa da Gipuzkoan eta Bizkaian, eta Araban Autonomi Erkidegoko egitura jarraitzen du. Ez dugu Nafarroako daturik eskuratzerik izan.



publikoa


Itunpekoa

Iturria: IKUSPEGI, INEren datuetan oinarrituta

www.euskaltzaindia.net

EUSKALTZAINDIA

TESTUA: Euskara eta immigrazioa harremanetan hasita, datu oso deigarriak aurkituko ditugu aurrerantzean, batik bat, batera erreduzitu dezakeguna: euskara eta immigrazioaren kokapen ekologikoak ia paraleloak dira. Hau da, etorkinak bizitza sozialeko egitura arruntetan euskararekin topo egiteko zailtasun objektiboak ditu. Immigrazio handia dagoen tokietan euskara gutxi dago eta alderantziz. Euskara gehien Gipuzkoan dago, baina metaforikoki ia etorkin gutxien ere. Bestalde, Nafarroako kasua daukagu, non euskaldun oso gutxi dagoen eta etorkin ugari. Beraz, egoera honek eskolatze ezinari gainezarrita zer pentsa eman behar digu.




- | | | | | | |
|-----------------------|-------------------|-------------------|----------------------|------------------|-------------------|
| ■ Araba kantauriarra | ■ Gorbeialdea | ■ Arabako Lautada | ■ Arabako mendialdea | ■ Errioxa Arab. | ■ Arabako Ibarrak |
| ■ Donostialdea | ■ Goierri | ■ Tolosaldea | ■ Urola Kosta | ■ Deba Goiena | ■ Bidasoa Beherea |
| ■ Deba Beherea | ■ Arratia-Nerbioi | ■ Durangaldea | ■ Enkarterriak | ■ Gernika-Bermeo | ■ Bilbo handia |
| ■ Markina-Ondarroa | ■ Plentzia-Mungia | ■ Ipar mendebalde | ■ Pirinioaldea | ■ Iruñerria | ■ Estelleria |
| ■ Erdialdeko Ekialdea | ■ Erribera garaia | ■ Tuterldea | | | |

EUSKALTZAINDIA


Euskaldunak/Immigrariak

TESTUA: Grafiko honetan aurretik esandakoa azpimarratu gura dugu. Hemen erakusten da, eskualdeka, zenbat euskaldun dagoen immigrari bakoitzeko. Esan bezala, ratorik handiena Gipuzkoako eskualde batzuetan gertatzen da, baina neurri batean euskaldun asko dagoelako eta etorkin gutxi. Esaterako, Tolosaldea, Deba Goiena eta Urola Kostan. Kasu bitxi bat Markina-Ondarroa da, non euskaldun portzentairik handienak etorkinen kopuru esanguratsu batekin topo egiten duen. Nafarroako eskualdeak, berriz, beste muturrean daude. Egoera kezkagarria erakusten dute, ez etorkinak euskarara hurbiltzerik izango ez dutelako, baizik eta euskara bera arrisku larrian dagoelako.




EUSKALTZAINDIA

TESTUA: Hurrengo grafikoak gauza bera erakusten digu, baina intentsitateak kontuan hartuta. Horretarako, alde batetik, etorkin edo euskaldun guztietatik eskualde bakoitzean ia zenbat bizi den kontuan hartu da. Bestalde eskualde bakoitzean etorkin eta euskaldun tasa hartu dugu. Bi datuak gurutzatuz grafiko hau daukagu, non immigrazioa dagoeneko eskualdeak eta euskaradunak bat ez datozen ikus litekeen.



EUSKALTZAINDIA

MAPAK: Euskararen geografia eskualdeka 2006ko datuak




Iturria: IKUSPEGI, INEren datuetan oinarrituta

www.euskaltzaindia.net


EUSKALTZAINDIA

MAPAK: Immigrazioaren geografia eskualdeka 2008ko datuak



EUSKALTZAINDIA

MAPAK: Euskararen geografi erabakiorra udalerrrika 2006ko datuak




Iturria: IKUSPEGI, INEren datuetan oinarrituta

www.euskaltzaindia.net

EUSKALTZAINDIA

MAPAK: Immigrazioaren presentzia udalerrika. 2008ko datuak



Egoera eta erronkak

1. Euskara egitura ahuletan garatu da historikoki eta badirudi halaxe jarraituko duela.
2. Hainbat jendek pentsa lezake, agian, etorkinen etorrerak euskararen egoera gehiago okertzen duela, baina seguruenik intentsitate eta kopuru kontua baino ez da.
3. Egoera demokratiko batek, bere nahi diren eskasi guztiak aintzat hartuta ere, errutinizatu egiten ditu konpromisoak. Teoria berri batek, zailtasun objektiboak aztertuz, euskararen garatze bideak berrausnartu behar ditu. Zalantza handiak daude orain arteko eskemen balioari buruz.
4. Horrela, etorkinen etorrerak azeleratu baino ez du egiten aspalditik beharrezko ikusten zen hausnarketa beharra. Berrero, beti lez, immigrazioak ispilu bat ipintzen digu, geure erronken kontzientzia hartzeko, zeren euskarak etorkinekin arazo bat badauka, batez ere, eta gauza guztien gainetik, bere gizarte propioarekin du erronka.

Egoera eta erronkak

5. Aurrekoaren haritik, berriro bi faktore gogoratzea ezinbestekoa da: bat, gehienak, lehen fasean behintzat, ez direla eskolaratuko; beraz bide formaletatik ez dira euskarara hurbilduko. Bide informaletatik, berriz, kokatzen diren gune linguistikoen arabera. Bi, oso giro euskaldunetan kokatu direnak gutxi dira, eta hiriburuetan euskaldunen presentziarik handienarekin ere, fragmentazioak ez du laguntzen ez etorkinen erakarpenerako ezta euskaldunen gune propioak konpaktatzeko ere.
6. Gainera, datozenen erdiak ez dute kode linguistikoz zertan aldatu nahi ez badute eta gainontzeko ugari –esaterako, afrikarrak, asiarrak eta hainbat europear— oso urrun daude euskaratik.
7. Soziolinguistika berritu batek berriro berrikusi behar du faktore ambiental hau edo kolektibitate hauen banaketa espaziala.
8. Faktore ekologiko hauei muga sozialak gainezarri behar zaizkie eta, ondorioz, parametro berrietatik aurre egin erronka honi. Oso interesgarria dirudi, eta askozaz errealistagoa, Euskara XXI ponentziak aitatu duen “diglosia sosteniblea”.

Egoera eta erronkak

9. Euskarari dagokionez, edozelan ere, eta immigrazioaren kudeaketa helburutzat hartuta, oso garrantzitsuak lirateke:

- Euskara modu eraginkorrean erakutsiko duten eredu pedagogikoak eta hezkuntz sistema berri baten diseinua. Helburu honek zeharo gainditzen du immigrazioaren erronka, baina immigrazio etorri berriak azkartu egin behar du prozesu hau, non eta kultura beti politikaren mende jartzen den gizarte batean, eta ustez konponbide politikoak berez eta trabarik gabe erronka kulturalaren oztopoak eta muga sozialak ezabatuko dituela gauetik goizera. Politikazentrismoa alboratuz eta berandu baino lehenago kulturari eta batez ere euskarari ekiteko garaia heldu da.
- Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da gurea bezalako errealitate nazional batean, immigrazio eta integrazio politika propioak garatzeko eskuduntza; bestela oso erraza da joko estatala. Behin eta berriz gogoratu behar da, hala ekonomian nola kulturen, liberalismo garaileen gramatika dela.
- Barrura begira, euskararen inguruan diharduten sektoreei ere euren oinarri teorikoak berrikusteko eskatu behar zaie baina, era berean, euskaratik oso urrun sentitu eta sentitzen diren sektoreei errespetu intelektuala eta jarrera dispizientea abandonatu beharra eskatu behar zaie.

10. Nolabait, konfiantza giroa sortu, helburuak berdefinitu, lortuko ez den estatu logika unibersalizantea mugatu eta bide berriak asmatu. Hori da erronka. Hor sartuko dira etorkinak, eta baita gure gizarteko sektore zabalak ere.

EUSKALTZAINDIA

ESKERRIK ASKO